

**Energiaren kontsumoa EAEn**

**Energia elektrikoa**

2022ko otsailean, aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, ondoko aldaketak izan zituen elektrizitatearen kontsumoak EAEn:

- Guztizkoa: -%4,6. Urteko metatua, -%8,3.
- Industria: -%7,1. Urteko metatua, -%9,8.
- Eraikinak: %3,6. Urteko metatua, -%3,7.
- Etxebizitzak: %0,6. Urteko metatua, -%9,8.
- Zerbitzuak: %6,1. Urteko metatua, %2,1.
- Siderurgia: -%10,1. Urteko metatua, -%15,6.

**Gas naturala**

2022ko otsailean, aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, ondoko aldaketak izan zituen gas naturalaren kontsumoak EAEn:



- Guztizkoa: %68,4. Urteko metatua, %48,2.
- Zentr. term.: %361,2. Urteko metatua, %297,6.
- Zerbitzuak: %18,3. Urteko metatua, %4,9.
- Etxebizitza: -%4,6. Urteko metatua, -%5,1.
- Industria: -%4,4. Urteko metatua, -%4,1.

**Erregaiak garraioan**

2022ko urtarrilean, aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, ondoko aldaketak izan zituzten garraiorako erregaien kontsumoak EAEn:

- Guztizkoa: %2,8. Urteko metatua, %4,3.
- A Gasolioa: %2,7. Urteko metatua, %3,5.
- Gasolinak: %3,9. Urteko metatua, %13.

Iturriak: EEEren lanketa, CORES, Enagás, Nortegas eta Iberdrolaren (energia fakturatua) datuetan oinarrituta.



#### COVID 19 EAEn

##### Energia elektrikoa

2022ko, 2021eko eta 2020ko otsailean, 2019ko hilabete berberarekin alderatuz ondoko aldaketak izan zituen industriaren elektrizitate kontsumoak EAEn:

- 2020 vs 2019: -%7,3. Urteko metatua, -%2,3.
- 2021 vs 2019: -%7,1. Urteko metatua, -%0,7.
- 2022 vs 2019: %0,3. Urteko metatua, -%10,5.

2022ko, 2021eko eta 2020ko otsailean, 2019ko hilabete berberarekin alderatuz ondoko aldaketak izan zituen eraikinen elektrizitate kontsumoak EAEn:

- 2020 vs 2019: -%4,8. Urteko metatua, -%0,9.
- 2021 vs 2019: -%7,9. Urteko metatua, -%1,4.
- 2022 vs 2019: -%7,9. Urteko metatua, -%5.





##### Gas naturala

2022ko, 2021eko eta 2020ko otsailean, 2019ko hilabete berberarekin alderatuz ondoko aldaketak izan zituen gainontzeko gas kontsumoak (industria eta eraikinak) EAEn:

- 2020 vs 2019: -%3. Urteko metatua, -%6,9.
- 2021 vs 2019: -%14,5. Urteko metatua, -%11,5.
- 2022 vs 2019: %15,1. Urteko metatua, %3,3.

2022ko, 2021eko eta 2020ko otsailean, 2019ko hilabete berberarekin alderatuz ondoko aldaketak izan zituen elektrizitatearen sorkuntzan erabilitako gas kontsumoak EAEn:

- 2020 vs 2019: %15,9. Urteko metatua, %26,4.
- 2021 vs 2019: -%37,6. Urteko metatua, -%24,2.
- 2022 vs 2019: %187,7. Urteko metatua, %201,4.



#### Erregaiak garraioan







2022ko, 2021eko eta 2020ko urtarrean, 2019ko hilabete berberarekin alderatuz ondoko aldaketak izan zituen A gasolioaren kontsumoak EAEn:

- 2020 vs 2019: %0,9. Urteko metatua, %0,9.
- 2021 vs 2019: -%13,3. Urteko metatua, -%13,3.
- 2022 vs 2019: -%10,9. Urteko metatua, -%10,9.

2021eko abenduan, 2020ko eta 2019ko hilabete berberarekin alderatuz ondoko aldaketak izan zituen kerosenoaren kontsumoak EAEn:

- 2020 vs 2019: -65,1%. Urteko metatua, -%62,7.
- 2021 vs 2019: -10,6%. Urteko metatua, -%45,6.
- 2021 vs 2020: 156,1%. Urteko metatua, %45,8.

Iturriak: EEEren lanketa, CNMC, Enagas eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.



### Nazioarteko egoera

#### Petrolioren kontsumoa munduan

2022ko otsailean, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuz, munduko petrolioren kontsumoa eta bere aldaketak ondokoak izan ziren:

- Gutzizkoa: 101,4 Mbbpd, (%7,5)
- Europa: 14,4 Mbbpd, (%12,8)
- EE.BB: 20,4 Mbbpd, (%16,7)
- Txina: 15,7 Mbbpd, (%1,2)

Munduan, azken 12 hilabeteen batez besteko kontsumoa 98,6 Mbbpd izan da 2021ko otsailean.







#### Gas naturalaren kontsumoa munduan

OCDEko herrialdeetan, 2021eko abenduan, aurreko urtekoarekin alderatuz, gas naturalaren kontsumoa zonaldeka eta beren aldaketak ondokoak izan ziren:

- OCDE Osoa: 188,6 bcm (-%2,6).
- OCDE Amerika: 103,9 bcm (-%3,1).
- OCDE Asia-Ozeania: 22 bcm (-%8,5).
- OCDE Europa: 62,7 bcm (%0,5).

2021eko abenduan, Alemaniak, Italiak, Erresuma Batuak, Herbehereak, Frantziak eta Espainiak OCDE-Europa guztiaren %67,4a kontsumitu zuten.

Iturriak: EEEren lanketa, AIE-ren eta EIA-ren datuetan oinarrituta.



### Energiaren kontsumoa Espainian

#### Energia elektrikoa

2022ko otsailean Espainiako elektrizitatearen kontsumoa, 2021eko otsailean baino %0,4 txikiagoa izan da. Urteko kontsumo metatua aurreko urteko hilabete berekoa baino %3,2 txikiagoa izan da.

Sorkuntza elektrikoari dagokionez, 2022ko otsailean ondokoa izan da:

- Berriztagarriak: %42 (eolika: %23). Urteko met. %42 (eolika:%23)
- Erregai fosilak: %34. Urteko met. %35
- Nuklearrak: %24. Urteko met. %22

#### Gas naturala

2022ko otsailean, aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, ondoko aldaketak izan zituen gas naturalaren kontsumoak Espainian:







- Guztizkoa: %22,6. Urteko met. %14,1.
- Zentr. term.: %199. Urteko met. %139,5.
- Gainontzekoa: %0,7. Urteko met. -%4,7.

#### Erregaiak garraioan

2021eko urtarrilean, aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, ondoko aldaketak izan zituzten garraiorako erregaiak Espainian:

- Guztizkoa: %20,6. Urteko metatua, %14,4.
- A Gasolioa: %17,6. Urteko metatua, %12,2.
- Gasolinak: %34,9. Urteko metatua, %24,1.

Iturriak: EEEren lanketa, REE, ENAGAS eta CORESen datuetan oinarrituta.



**Energiaren prezioak**

**Petrolioaren prezioa**

Brent upelaren batez besteko prezioa 97,13\$ (85,6€) izan zen otsailean. Aurreko urteko hilabete berdinarekin alderatuz, prezioa % 56 altuagoa izan zen (%66 altuagoa eurotan).

**Gas naturalaren prezioa**

Europako merkatuetako prezioak hurrengoak izan ziren otsailean:

- Holandar TTFa (erreferentziako prezioa europar merkatuan): 79,9 €/MWh.
- Espainiar MIBGASa: 81,3 €/MWh.
- Alemaniako THE Indexa: 81,5 €/MWh.

Gas naturalaren prezioak nazioarteko merkatuetan hurrengoak izan ziren otsailean:

- EEUU Henry Hub: 14,1 €/MWh.

**Elektrizitatearen prezioa**

Espainian, eguneroko merkatuan, elektrizitatearen prezioa 200,2 €/MWh izan zen otsailean, aurreko urteko hilabete berarekin konparatuta %293,6 altuagoa. Alemanian berriz SPOT merkatuko hilabeteko batez besteko prezioa 128,8 €koa izan da eta Frantzian berriz 185,5€koa.

**Erregaien prezioak**







2022ko otsailean garraioko erregaien prezioa eta aurreko urteko hilabete bereko prezioarekiko diferentzia, ondokoak izan ziren EAEn:

- A Gasolioa: 1,51 €/l. (%27,9).
- Gasolinak: 1,62 €/l. (%24,9).

**CO<sub>2</sub>-aren prezioa**

CO<sub>2</sub>-aren isurtzeko eskubideak 90,8 €/t-ko balioa lortu zuen otsailean.

Iturriak: EEEren lanketa, EIA, OMIE, OMIP, Powernext, MIBGAS, JOGMEC, THE eta beste iturri batzuen datuetan oinarrituta.



Elektrizitatearen ekoizpena Europan

Espainia

Espanian, sorkuntza elektrikoa, orokorrean, eta energia berriztagarriak, bereziki, ekoizpen hidroelektrikoren mailaren eraginpean daude, klimatologiak baldintzatzen duena (urte lehorra vs. urte hezea).

2021ko abenduan, azken 12 hilabeteen batz besteko elektrizitatearen ekoizpena ondokoa izan zen iturriaren arabera:

- Berriztagarria: %48 (eolikoa %23).
- Nuklearra: %20.
- Fosila: %32 (ikatz %2).

Azken 12 hilabeteetako batez besteko ekoizpena 22059 GWh izan da.

Frantzia

Frantzian, energia nuklearrak, pisu nabarmena izaten jarraitzen du.

2021ko abenduan, azken 12 hilabeteen batz besteko elektrizitatearen ekoizpena ondokoa izan zen iturriaren arabera:

- Berriztagarria: %24.
- Nuklearra: %67.
- Fosila: %9.

Azken 12 hilabeteetako batez besteko ekoizpena 44617 GWh izan da.

Alemania

Alemaniako elektrizitate sorkuntzan, azpimarratzekoa da erregai fosilen parte-hartzea.

2021ko abenduan, azken 12 hilabeteen batz besteko elektrizitatearen ekoizpena ondokoa izan zen iturriaren arabera:

- Berriztagarria: %42 (eolikoa %20).
- Nuklearra: %12.
- Fosila: %47 (ikatz %29, gas naturala %15).

Azken 12 hilabeteetako batez besteko ekoizpena 46893 GWh izan da.

Iturriak: EEEn lanketa, AIE-ren datuetan oinarrituta.